

Estás en: diariovasco.com > [Noticias Más Actualidad](#) > [Noticias Cultura](#)

CULTURA

'Mundua lo dagoen bitartean', gazteak erakartzeko saio berezia

Bilborock-en barruan antzeztua izateko jaio zen testu hau liburu moduan publikatu da orain. Ordu txikietako irratsaio batean kokatzen da istorioa

20.11.08 - FELIX IBARGUTXI | DONOSTIA.

Vota ★★★★★ | 0 votos ★★★★★

Opina

Ver comentarios (0)

Imprimir

Enviar

Rectificar

DV. Patxi Zubizarretaren *Mundua lo dagoen bitartean* eman du argitara Txalaparta etxeak. Berez antzezlan bateko gidoia zen, Bilborock-eko antola-tzaileek eskatua eta bertan taularatua duela bi urte. Orain liburu itxura hartu du.

Orain dela bi urte sortu zen *Mundua lo dagoen bitartean*. Patxi Zubizarretak erronka gisa hartu zuen Bilbock-ekoek eskaera, eta nahi izan zuen euskarri asko baliatu, gazteengana iritsi nahian. «Horixe baita zailena, gazteentzat idaztea», esan zuen idazleak atzoko aurkezpenean. Liburuaren epilogoan gogoeta egiten du horretaz guztiaz.

Lau aldiz antzeztu da *Mundua lo dagoen bitartean* eta datorren abenduaren 19an Tafallan eskainiko da. Atzoko aurkezpenera, idazlearekin batera, Iban Garate aktorea eta Joserra Senperena musikaria agertu ziren, biak antzezlanerako lan egindakoak.

Istoria irrati batean gertatzen da, gauez. Entzule batek deitzen du hau esateko: «Epa, Gabon. Nik... zera... nik Juneri buruz hitz egin nahi dut. Nik... Gasteizen ezagutu nuen, unibertsitatean. Ez dut fakultatea aipatuko, ze ez nuke nahi inortxok ere zeratzea, ezagutzea, ez bera ez ni».

Handik aurrera, irratsaio horretan lau gautan zehar gertatzen eta esaten direnak kontatzen du liburuak.



Patxi Zubizarreta, atzo. /LUSA

EUSKARRIAK

Ahotsa: Lehenbizi antzeztu egin zen.

Bideoa: Ane Muñozek imajina batzuk hartu zituen Gasteizen gau batean.

Papera: Orain liburu moduan argitaratu da.

Internet: www.txalaparta.com